



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2021eko deialdia. Kale Garbiketako peoi lanposturako behin-behineko puntuazioak onartzea.

2021eko ekainaren 16ko data duen Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPEN bidez onartu zen "Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2021eko dirulaguntzen deialdia" (EHAA 2021/06/30).

Oñatiko Udalak 5 pertsona kontratatuko ditu dirulaguntza deialdi honen bitartez:

- KALE GARBIKETAKO PEOIA: Bi lanpostu. 4 hilabeterako, %100ko lanaldi osoan.
- ADMINISTRARIA: Lanpostu bakarra. 4 hilabeterako, %80ko lanaldi partzian.
- UDAL ERAIKINEN GARBITZAILEA: Bi lanpostu. 4 Hilabete eta erdirako (4,5), %80ko lanaldi partzian.

Lan-eskaintza hauetara aurkeztu diren hautagaiek kontratatuak izateko honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda eta alta-egoeran egotea, eta kontratua hasteko bezperan langabea izatea.
- 2021eko ekainaren 30eko EHAAn argitaratutako "Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2021eko dirulaguntza deialdia-ren" 2. artikuluko 6.1. puntuan (1. Mota.- Enplegua sustatzea) zehazten diren baldintzak betetzea.
- Oñatin erroldatuta egotea.

Horretaz gain, Oñatiko Udalak KALE GARBIKETAKO PEOI lanposturako honako ratioak bete behar ditu:

- Gutxienez lanpostu batean kontratatutako pertsona diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuradun izatea.
- Gutxienez lanpostu batean kontratatutako pertsona emakumezkoa izatea.

Azkenik, jarraian zehazten diren ezinbesteko baldintzak ezarri dira lanpostu honetarako:

- B1 motako gida baimena indarrean izatea.

KALE GARBIKETAKO PEOIEN lanpostura aurkeztutako hautagaiekin elkarrizketak egin dira eta lan esperientzia, langabezian egondako denbora eta euskararen ezagutzaren balorazioa egin da.

Horrela, beraz, Sozioekonomia Sailaren eta Pertsonal Sailaren irizpenak aldekoak direla kontuan hartuta, nik, Alkate naizen honek, honen bidez erabakitzen dut:

LEHENENGOA.- KALE GARBIKETAKO PEOIEN lanposturako aurkeztutako pertsonen behin-behineko puntuazioak onartzea.

PUNTUAZIO OROKORRA		
NA zenbakia	PUNTUAZIOA	OHARRAK
***0049**	8,20	
***7994**	8,01	Lanean
***7501**	7,00	
***9150**	4,61	
***5778**	-	Gidabaimen gabe
***9668**	-	2019ko deialdian kontratatua

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN TITULAR EDO ONURADUNAK		
NA zenbakia	PUNTUAZIOA	OHARRAK
***0049**	8,20	
***7994**	8,01	Lanean
***7501**	7,00	
***9150**	4,61	
***9668**	-	2019ko deialdian kontratatua

EMAKUMEZKOAK		
NA zenbakia	PUNTUAZIOA	OHARRAK
***7501**	7,00	
***5778**	-	Gidabaimen gabe

BIGARRENA.- Erreklamazioak aurkezteko epea irekitzea, horretarako epea azaroaren 16 artekoa izango delarik.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2021eko azaroaren 11n.

ALKATEAK

Izaro Elorza Arregi

